

4. agiria

HIRIGINTZA FITXAK

ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA

AURKIBIDEA - I. HIRIGINTZA FITXAK

1.	HIRIGINTZA FITXA	01. HA	Alde Zaharra
2.	HIRIGINTZA FITXA	02. HA	San Telmo auzoa
3.	HIRIGINTZA FITXA	03. HA	Odieta-San Jose auzoa
4.	HIRIGINTZA FITXA	04. HA	Arrangoleta zabalgunea
5.	HIRIGINTZA FITXA	05. HA	Larretxo zabalgunea
6.	HIRIGINTZA FITXA	06. HA	Zelaia-Komentua zabalgunea
7.	HIRIGINTZA FITXA	07. HA	Ardantzabide zabalgunea
8.	HIRIGINTZA FITXA	08. HA	Erribera zabalgunea
9.	HIRIGINTZA FITXA	09. HA	Gernika zabalgunea
10.	HIRIGINTZA FITXA	10. HA	Basadi- Aita Mari-Alai zabalgunea
11.	HIRIGINTZA FITXA	11. HA	Jadarre-Gurrutxaga
12.	HIRIGINTZA FITXA	12. HA	Estazioa I
13.	HIRIGINTZA FITXA	13. HA	Zerbitzuak *
14.	HIRIGINTZA FITXA	14. HA	Estazioa, industrial
15.	HIRIGINTZA FITXA	15. HA	Ayra Durex, industrial
16.	HIRIGINTZA FITXA	16. HA	Narrondo *
17.	HIRIGINTZA FITXA	17. HA	Artadi
18.	HIRIGINTZA FITXA	18. HA	Korta, industrial
19.	HIRIGINTZA FITXA	19. HA	Oikia
20.	HIRIGINTZA FITXA	20. HA	Estazioa II
21.	HIRIGINTZA FITXA	1. sektorea	Puntueta II
22.	HIRIGINTZA FITXA	2. sektorea	Puntueta I
23.	HIRIGINTZA FITXA	3. sektorea	Guascor, industrial
24.	HIRIGINTZA FITXA	4. sektorea	Xey, industrial
25.	HIRIGINTZA FITXA	5. sektorea	Olaizola, industrial *
26.	HIRIGINTZA FITXA	6. sektorea	Narrondo *
27.	HIRIGINTZA FITXA	1. SO	Paola eta Inpernupeko labarrak.
28.	HIRIGINTZA FITXA	2. SO	Santixoko hondartza eta dunak.
29.	HIRIGINTZA FITXA	3. SO	Laia. Zuloaga
30.	HIRIGINTZA FITXA	4. SO	Itzurun
31.	HIRIGINTZA FITXA	5. SO	Eusebido Gurrutxaga plaza - Foronda
32.	HIRIGINTZA FITXA	6. SO.	Amaia Plaza
33.	HIRIGINTZA FITXA	7. SO	Portua
34.	HIRIGINTZA FITXA	8. SO	Zumaia-Oikia-Artadi hilerria
35.	HIRIGINTZA FITXA	9. SO	Kirol eta eskola ekipamenduak
36.	HIRIGINTZA FITXA	10. SO	Urola ibaia
37.	HIRIGINTZA FITXA	11. SO	Narrondo ibaia
38.	HIRIGINTZA FITXA	12. SO	Trenbide sarea
39.	HIRIGINTZA FITXA	13. SO	A-8 autobidea (Bilbao-Behobia)
40.	HIRIGINTZA FITXA	14. SO	N-634 errepide nazionala (Zumaia saihebidia)
41.	HIRIGINTZA FITXA	15. SO	GI-2633 errepidea (Meagas)
42.	HIRIGINTZA FITXA	16. SO	GI 3760 errepidea
43.	HIRIGINTZA FITXA	17. SO	GI 3811 errepidea
44.	HIRIGINTZA FITXA	18. SO	GI 3812 errepidea
45.	HIRIGINTZA FITXA	19. SO	Artadi hiri inguruko parkea
46.	HIRIGINTZA FITXA	20. SO	Talaimendi hiri inguruko parkea

* behin betiko onartzeko

HIRIGINTZA FITXA**ERABILERA PRAKTIKORAKO ARGIBIDEAK.**

1. Hirigintza fitxetako parametroen definizioa antolamendu irizpideen ondorioa da.
2. 5.17. antolamendu planoari esker (Kudeaketa Unitateen Mugapena), fitxa bakoitzaren eremua udalerrian berehala kokatzeko aukera dago.
3. Fitxen antolamendu eskemen bidez, Arau Subsidiarioen gainerako dokumentazio grafikoaren gabeziak edo/eta zehaztugabetasunak osatzen dira. Izan ere, fitxak tresna fidagarriagozat jo behar dira agiriaren antolamendu asmoak interpretatzeko.
4. Area urbano eta urbanizagarrietako antolamenduak adierazpen hutsa dira, hirigintza irizpide eta helburuak ez bezala, horiek derrigorrezkoak baitira. Horiek garapeneko planeamenduaren bidez garatuko dira (Barne erreformako plan berezia, Plan partziala, Xehetasuneko azterketa, Hirigintza plana).
5. Kalifikazio xehekatuko azalerak orientagarriak dira, eta garapeneko planeamenduan zehaztuko dira behin betiko.
6. Sabai eraikigarria da fitxen funtsezko xedapena; oinplanoko okupazioa zertxobait alda daiteke, erabilitako tipologien eta eraikitze sakoneren arabera.
7. Esku-hartze zuzeneko unitateetan edo eraikuntza ordezkatzan denean, teilatu hegala altuerari eutsi behar zaio. Hala ere, zenbait aldaketa txiki egin ahal izango da, eraikuntza arauak eta lurzorua egokitzapenak hala eskatzen badute, bai eta arkitektura edo konposizioa dela eta, aldaketa horiek lekuaren eta fatxada urbanoaren kalifikazioa hobetzen badute. Horretarako, beharrezkoa izango da alde aurretik txosten tekniko arrazoitua izatea.
8. Jarduera sistemiei dagokienez, horiek orientagarriak dira, eta Garapeneko planeamenduan zehaztuko dira behin betiko.
9. Aurreko ataletako ezaugarri orientagarriei dagokienez, horiek garapeneko planeamenduko dokumentu bat ezartzea aurreikusita dagoen kasuetarako bakarrik hartu behar dira kontuan. Udalak erabakiko ditu interpretazio edo/eta aplikazio praktikoko zalantzak, ebazpen arrazoituen bidez, horiei dagozkien alde aurreko txosten teknikoak oinarri hartuta.

Pasaia, 2004ko martxoa

Luciano Pagaegi Bilbao

José Luis Loinaz Arrieta

HIRIGINTZA FITXA 01. HA. ALDE ZAHARRA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

1.1. PLANEAMENDUKO INFORMAZIOA.

Hirigintza jarduerarako eremu honek, muga berriekin, honako hauek biltzen ditu: 1993ko Arau Subsidiarioetako 1., 2., 3., 4., 5., 6. eta 7. HGAK, eta horiek "Zumaiako hirigune historikoa" osatzen dute.

1.2. EGITURA URBANOA.

1993ko Arau Subsidiarioen arabera, area horiek hartzen duen eremuak Zumaiako hirigune historikoa osatzen zuen. Dena den, bistakoa da Alde Zaharraren ertza Harategi kalearen atzeko lerrokadura dela, Ardantzabide kalearen osaera (biltegi zaharrak barne) hirigunearen traza baino geroagokoa baita.

1.3. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Hirigintza jarduerarako eremu honentzat Birgaitzeko plan berezi bat idatzi da bakarrik, eta hori behin betiko onartzeke dago. Berrikuspenean, plana eguneratzea eta berridaztea proposatzen da.

1.4. EGITURA URBANOA.

Hirigune historikoaren egiturako elementu nagusia Kale Nagusia da, horrek ardatz bat osatzen baitu San Pedro eliza eta udaletxeak, komentuak eta merkatuak osatzen duten multzoaren artean. Kale Nagusia Angeles Sorazu kalean bermatzen da, ibilgailuentzako bidea da (bakarra eta barnekoa), eta sare urbanoa antolatzeke balio du. Multzo horren ezaugarri nagusia zenbait lekutan oso estua izatea da, eta beste batzuetan, berriz, irregularra; beraz, ez du ibilgailu sarbide erregularra izateko aukerarik ematen, eta, horregatik, komeni da hirigintza aldetik oinezkoentzako eremutzat erabiltzea.

1.5. PARAMETRO KUANTITATIBOAK.

Eremuaren guztizko azalera.....	44.908 m ²
Etxebitzak (1993).....	486 (1999)
Okupatuak	345
Hutsik	121
Biztanleriaren dentsitatea.....	314 biztanle/ha
Etxebizitza dentsitatea.....	116 etxebizitza/ha

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Lurzoru urbanoa.
 2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : Bizitegirako Hirigune Historikoa.
 2.3. KALIFIKAZIO XEHEKATUA : Kalifikazio xehekatuaren erregimena Birgaitzeko plan berezian zehaztuko da.

3. EREMUAREN MUGAPENA.

Arau Subsidiario hauei dagokionez, Hirigintza jarduerarako eremu honek hiri area bakar bat osatzen du: Zumaiako Alde Zaharra HA, eta hortik 4 exekuzio unitate eta esku-hartze zuzeneko 2 unitate sortzen dira, alde zurretik aurreikusitakoak denak ere. Horietatik hiru Ardantzabideko biltegi zaharrak dira, eta hirigunearen trazarekin zerikusi handirik ez dutenez, egokitzat jo daiteke horien garapena bereiztea, aurreikusitako eraldaketa hobeto egiteko.

4. HIRIGINTZA IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

Exekuzio zuzenari kalterik egin gabe, hiri arearen Birgaitze integralerako plan berezi berri bat idatzi eta izapidetu ahal izango da. Birgaitze horren baitan, honako hauei ekin beharko zaie:

Ondare eraikia birgaitzea.

Eremu libreak birkalifikatzea.

Trafikoa eta irisgarritasuna arautzea, eta oinezkoentzat bihurtzea.

Merkaturako, udaletxerako, komenturako eta alondegirako berrekipamenduak.

5. ORDENANTZA XEHATUAK.**5.1. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO XEDAPENAK.**

- Area Zumaiako hirigune historiko definitzea.
- Erantsitako fitxaren kalifikazio xehekatua.
- Erantsiriko fitxan kalifikaturiko dotazio eraikinak.
- Eraikuntza berrirako eta aprobetxamendurako baldintzak.
- Angeles Sorazu kalera lotzen duen kalezuloa eta lotura irekitzea.
- Atzeko lerrokadura berria, San Jose Kanean.
- Dotazio eraikinak, Ubillos, alondegi, komentu eta merkatuan.
- Udaletxea handitzea sustatzea.
- Eusebio Gurrutxaga plazako atzealdeko espazio urbanoa zehaztea.
- Komentuko espazio libreak antolatzea.
- Eraikuntzaren ordezkapenerako edo zaharberritze integraleko obrarako baldintzak ezartzea.

5.2. PLAN BEREZIAN HONAKO HAUEK ZEHAZTUKO DIRA:

Kalifikazio xehekatu zehatza.

Hiri arearen aprobetxamendurako eta eraikitzeko baldintzak.

Espazio librean eta espazio eraikien erabilera eta jabari erregimenak.

Eraikuntzaren irisgarritasun baldintzak eta eraikuntza lotearen partzelazioarekiko duten lotura.

Birgaitze prozesuko eta hirigintza jarduerako kudeaketa eredua.

Oinarrizko azpiegiturak integratzea.

Espazio pribatuak kalifikatzea.

Bizigaitasun baldintza minimoak zehaztea, azalerari, eta programa eta baldintza higieniko-sanitarioei dagokienez.

5.3. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA BEREZIAK.**5.3.1. APROBETXAMENDUA. 01.1. EU. ERRIBERA 5.**

Azalera 806 m²

1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikuluen arabera).

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Behe solairua	Merkataritzakoa/aparkal.	184-256	0,90-0,95	166-243
Lehen solairua	Etxebizitza/aparka.	184-256	1-0,95	184-243
Bigarren solairua	Etxebizitza/aparka.	184-256	1-0,95	184-243
Hirugarren solairua	Etxebizitza	356	1	356
Laugarren solairua	Etxebizitza	356	1	356
Teilatupeko solairua	Etxebizitza	300	1	300
Guztira		2.332		2.275
Azalera konputagarria				806
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				2,82
Etxebizitza kopurua				13*

* Tipologia ezaugarriak direla eta (zabalgune ezaugarriak ditu, hirigune historikokoak baino gehiago), 034.3. artikulua ezar dakioko.

2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Kaleak irekitzea, iparraldera eta hegoaldera, eta Kale Nagusirako eta Erribera Kalerako loturak, hurrenez hurren.

Urbanizazio baldintzak: Erribera 7-9ren aldameneko harmailadia zabaltzea Olazabal Idazkaria kaleraino, eta Kale Nagusiarekin lotzea.
Plaza sortzea, goragoko kotan

4. ERAIKITZEKO BALDINTZAK: Hirigune historikoak egun dituen ezaugarrien antzekoa.
Lerrokadurak; 1/2.000 planoaren arabera
Altuerak: teilatu hegala, 15,50 (gehienez)
Profila: Behe solairua + 4 + teilatupekoa, atzeraemana (Erribera kaletik), hirigintza fitxaren arabera.
Atzeraemanguneak: Teilatupeko solairutik 3 metro, fatxada planoarekiko.
3 edo 4 isurkiko estalkia.
Lote gotikoko irudia Erriberara ematen duen fatxadan eta atzekoan.

5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua

Azalerak	espaloiak eta oinezkoentzako pasealekuak	160 m ²
	espazio libreak	300 m ²

6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Xehetasuneko azterketa
Konpentsazio proiektua.
Urbanizazio proiektua.

7. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

- Hirigune historikoaren goialdearekiko irisgarritasuna hobetzea, erraztea eta egituratzea, Erribera 7-9ko harmailadia zabalduz, eta plaza berri bat sortzea hirigunean, erdi mailan-edo.

TESTU BATEGINA

4. agiria- Hirigintza fitxak

5.3.2. APROBETXAMENDUA. 01.2. EU. HARATEGI-ARDANTZA.

Azalera 397 m²

1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikulak)

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
1.1. EU. Behe solairua	Merkataritzakoa/Etxebizitza	100-99	0,90-1	99-99
Lehen solairua	Etxebizitza	284,25	1	284,25
Bigarren solairua	Etxebizitza	267,95	1	267,95
Hirugarren solairua	Etxebizitza	227,2	1	227,20
Teilatupeko solairua	Etxebizitza	66,25	1	66,25
1.2. EU. Behe solairua	Merkataritzakoa	90,70	0,9	81,60
Lehen solairua	Etxebizitza	90,70	1	90,70
Bigarren solairua	Etxebizitza	90,70	1	90,70
Hirugarren solairua	Etxebizitza	90,70	1	90,70
Teilatupeko solairua	Etxebizitza	40,30	1	40,30
Guztira		1.447,75		1.438,65
Azalera konputagarria				397
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				3,62
Etxebizitza kopuru estimatua				12

2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak laga egin beharko zaizkio.

3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Ardantza Bideko harmailadia eta Hirigunerako sarrera arku finkatzea.

4. ERAIKITZEKO BALDINTZA ZEHATZAK.

Hirigune historikoko berezkoak.

Ardantzabiderako harmailadira ematen duen fatxada gordetzea.

Estalkia mailakatzea, Ardantzabideko harmailadiak ezarritako profilarri egokitzeko

Lerrokadurak: 1/2.000 planoaren arabera

Altuerak: teilatu hegala, hirigintza fitxaren arabera: aldameneko eraikinaren teilatu hegala berdina.

Profila: Behe solairua + 3 + teilatupea

5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua.

Azalerak: xehetasuneko azterketaren arabera.

6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Konpentsazio proiektua.

Xehetasuneko azterketa

7. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

Hirigune historikoaren Ipar-mendebaldeko ertza eraldatzea, Harategin, Ardantzabiden eta hirigunera sartzeko harmailadian trazatu urbanoko lerrokadurak gordez.

5.3.3. APROBETXAMENDUA. 0.1.3. EU. ARRITOKIETA.**Azalera: 1.371 m²**

1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikuluen arabera).

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Erdisoto solairua	Etxebizitzen eranskinak	220	0,95	209
Behe solairua	Etxebizitza	220	1	220
Lehen solairua	Etxebizitza	220	1	220
Teilatupeko solairua	Etxebizitza	120	1	120
Guztira		780		769
Azalera konputagarria				1.371
Batez besteko aprobetxamendua				0,56
Etxebizitza kopurua				4

2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Arritokietako ataurre berezietako lagapen espazioak urbanizatzea.
Oinezkoentzako lotura, hirigunearen eta Ardantzabideren artean.

4. ERAIKITZEKO BALDINTZA ZEHATZAK: Hirigune historikoko berezkoak.

Lerrokadurak: 1/2000 planoaren arabera
Altuerak: 7 metroko teilatu hegala, hirigintza fitxaren arabera.
Profila: Erdisotoa + behe solairua + 1. solairua + teilatupea

5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua

Azalera

Eremu libreak eta jabari publikoa..... 350 m²
Eremu libreak eta jabari pribatua..... 434 m²

6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Konpentsazio proiektua.
Urbanizazio proiektua.

7. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

Hirigune historikorako 15. sarbidea sortzea, Ardantzabidetik. Horren bidez, hirigunerako sarbideak egituratu eta orekatu egingo dira.

Fatxada urbana errematatzea eta Arritokietako antolamenduko berezko ataurreen segidari jarraipena ematea.

5.3.4. APROBETXAMENDUA 01.4. EU. ARDANTZABIDE.Azalera 373 m²

1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikuluen arabera).

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Behe solairua	Merkataritzako lokala	200	0,90	180
Lehen solairua	Etxebizitza	300	1	300
Bigarren solairua	Etxebizitza	300	1	300
Hirugarren solairua	Etxebizitza	300	1	300
Guztira		1.100		1.080
Azalera konputagarria				373*
Batez besteko aprobetxamendua				2,89
Etxebizitza kopurua				9

* lurraren berezko irregulartasunaren arabera (egun dagoen eraikinak ezkatzen baitu irregulartasuna, alegia).

2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Ez da ezartzen.

4. ERAIKITZEKO BALDINTZA ZEHATZAK: Hirigune historikoko berezkoak.

Lerrokadurak: 1/2000 planoaren arabera

Altuerak: hirigintza fitxaren arabera: aldameneko eraikineko teilatu hegalaren berdina.

Profila: Behe solairua + lehen solairua + bigarren solairua + hirugarren solairua

Harategi kaleko eraikinarekin elkartzeko modua era integralean aztertu beharko da, dagoen eraikuntza multzoari irtenbide integrala emateko.

5. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Xehetasunezko azterketa.

Konpentsazio proiektua.

6. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

Fatxada urbana errematatzea, Ardantzabide kalean, egungo pabiloiak eta biltegiak eraldatuz, alde zaharreko osaketa irizpideen arabera.

5.3.5. HIRIGUNE HISTORIKOAREN GAINERAKOA.**APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.**

APROBETXAMENDUA. Idatzi beharko den Birgaitzeko plan bereziaren arabera. Ordezkapenak badira, planaren ezean, baldintza horiek hirigintza arauen 34., 54. eta 55. artikuluen arabekoak izango dira.

ERAIKUNTZA Plan berezia onartu arte, eraikitako azalera eta oinplanoko okupazioan gehikuntzarik eragiten ez duten mantentze eta birgaitze lanetarako bakarrik emango da baimena, bi hauetan izan ezik: 01/1. EZUn (horretan, bi solairu jasotzeko baimena ematen da, 1993ko arau subsidiarioetan eta duela gutxi aurkeztutako Oinarrizko proiektuan adierazten zen moduan; Ardantzabidetik behe solairu+3ko profila izan arren, ez da kontuan hartu beharreko esku-hartzea hirigunearen bukaeran) eta 01/2. EZUn (kasu horretan, dauden etxebizitzak handitzeko balio du, bai eta Ardantzabide kaletik igogailu bat ezartzeko ere).

Bi unitate horien hirigintza parametroak honako hauek dira:

	Sabai eraikigarria (m ²)	Etxebizitza kopurua, gehienez
01.1. EZU	400	2
01.2. EZU	168	0*

* egungo etxebizitzak handitzea eta horietako sarbideak zabaltzea.

Plan berezian xehekatuko dira, zehatz-mehatz, eraikuntzako baldintza bereziak, bai eraikin finkatuenak, bai eta plantea daitezkeen eraikin berrienak ere.

Birgaitzeko plan berezia onartu arte, oro har, behe solairua + 3 + teilatupea izango da baimendutako gehienezko profila.

ERABILERA Berezko erabilera: hirigune historikoko bizitegirakoa.

Dagokion erabilera erregimen orokorra Arau Subsidiarioen 11. artikuluan zehazturikoa da.

Teilatupeko erabilera erregimena Arau Subsidiarioetan (51. artikulua) zehazturikoa izango da.

Plan berezian zehaztu beharko dira espazio guztiei dagozkien erabilera erregimena eta baimenduriko eta, eraikuntza profilaren arabera, debekaturiko jarduerak.

JABARIA Jabari erregimena eta partzelazio pribatuko baldintzak Plan berezian zehaztu beharko dira.

5.4. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK.

Birgaitzeko plan berezia onartzen ez den bitartean, egiten diren azpiegiturek lurpekoak izan beharko dute, betiere, eta horiek ustiapenen enpresa titularren kontura izango dira, guztiz.

Honako ekipamendu berri hauek ezartzen dira: egungo udaletxea zabaltzea, karmeldar oinutsen komentuaren eta alondegiaren erabilera aldatzea.

5.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Planeamendua. Zumaiako hirigune historikoaren antolamendua egiteko, fitxa honetan adierazitako xehetasunekin, Birgaitzeko plan berezi bat egin eta onartu behar da (abenduaren 26ko 308/2000 Dekretua, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko ekimen babestuei buruzkoa), eta hori Area osoari dagokio, dagoeneko ezarrita dauden Exekuzio unitateen antolamendua barne.

Plan berezian ezarritako eremu mugaketak, fitxa hauetan ezarritakoa zabal dezake, eta aldameneko beste zona edo eremu batzuk bere baitan hartu, planeamenduari aldaketarik egin beharrik gabe edo lurzorua birkalifikatu beharrik gabe. Aldi berean, eremua txikitzeko aukera ere badago, betiere zehaztasun historikoko arrazoien bidez arrazoitzen bada.

Garapeneko planeamenduan interes arkeologiko-arkitektonikoko katalogoa adierazi behar da, bai eta hori handitu ere, horrelakorik egokia bada.

HIRIGINTZA FITXA : 02. HA. SAN TELMO AUZOA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.****1.1. PLANEAMENDUKO INFORMAZIOA.**

Hirigintza jarduerarako eremu honek indarrean dauden 1993ko Arau Subsidiarioetako 12. HGA biltzen du. Horretatik, 12/1. EUI, 12/1. EZU, eta 12/2. EZU atera dira, eta 07. HA eta 01 HAn (merkatua) sartu dira. Azalera: 6.634 m²

1.2. EGITURA URBANOA.

1993ko Arau Subsidiarioetako zonakatzearen arabera, area horien eremuak 12. HGA osatzen zuen.

1.3. GARAPENEN PLANEAMENDUA.

1993ko Arau Subsidiarioek, eremu hori 12. HGA eta 15. HGA eremuetan banatzen zuten.

Auzoaren izaera historikoa dela eta (eta hirigune zahar baten itxura nabarmena izateagatik), Barne erreformako plan berezi bat (birgaitzeko helburuz) idatzi beharko da.

1.4. EGITURA URBANOA.

Eremu horren egiturako elementu nagusia San Telmo kalea da, horrek ardatz bat osatzen baitu San Telmo ermitaren eta San Pedro elizaren artean. Kale hori ibilgailuentzako bidea da (bakarra eta barnekoa), eta sare urbanoa antolatzeke balio du. Multzo horren ezaugarri nagusia zenbait lekutan oso estua izatea da, eta beste batzuetan, berriz, irregularra; beraz, ez du ibilgailu sarbide erregularra izateko aukerarik ematen, eta, horregatik, komeni da hirigintza aldetik oinezkoentzako eremutzat erabiltzea.

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- | | |
|--|--|
| 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA | : Lurzoru urbanoa. |
| 2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA | : Bizitegirako (San Telmo auzoa). |
| 2.3. KALIFIKAZIO XEHEKATUA | : Barne erreformako plan bereziak ezarriko du kalifikazio xehekatuaren erregimena. |
| 2.4. DENTSITATEA | : 100 etxeb./ha |
| 2.5. AREA FINKATUAREN KUDEAKETA | : Barne erreformako plan berezia, birgaitzeko helburuz. |

3. AREEN MUGAKETA.

Arau Subsidiario hauei dagokienez, Hirigintza jarduerarako eremu hau hiri area bakarra da: 02. HA, San Telmo auzoa.

4. HIRIGINTZA IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Barne erreformako plan bereziak honako hauek joratu beharko ditu, besteak beste::

Hiri arearen birgaitze integrala, eta horrek honako hauei ekitea eskatzen du:

Eraikitako ondarea birgaitzea.

Trafikoa eta sarbideak arautzea (espalo berriak egitea).

Orube eta eraikuntza lote bakoitzeko erabilerak eta gehieneko aprobetxamenduak ezartzea (kudeaketa unitate berriak zehaztea eta guzti). Partzela bakoitzaren eraikuntza baldintzak, aprobetxamenduak, lerrokadurak, profilak,

eraikuntza altuerak eta teilatu hegalenak ezartzea, bai eta ordezkapen eta lagapen baldintzak ere, baldin badagozkie.

5. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

San Telmo auzoari dagokion Barne erreformako plan berezia idazten ez den bitartean, honako baldintza hauek ezartzen dira:

Oro har, egungo lerrokadurak, sestrak eta bolumenen antolamendua finkatzen dira.
Arearen gehienezko okupazioari dagokionez, egungo okupazioa finkatzen da.
Espazio libre pribatuen antolamenduari eta erabilerei dagokienez, egungoak finkatzen dira.

5.1. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

5.1.1. Aprobetxamendua.

Egungo eraikuntza garapena finkatzen da, eta horrekin area horri dagokion hirigintza aprobetxamendua agortu egiten da.

5.1.2. Eraikuntza.

Eraikitako azalera eta etxebizitzaren kopurua gehitzen ez duten mantentze eta birgaitze lanetarako bakarrik emango da baimena. Barne erreformako plan berezia onartzen ez den bitartean, behe solairua + 3 + teilatupea izango da baimendutako gehienezko profila.

5.1.3. Erabilera.

Berezko erabilera: Bizitegirako

Dagokion erabilera erregimen orokorra hirigintza arauen 11. artikuluan zehazturikoa da, honako hauek kontuan hartuta:

Erabilera baimenduak

- 1. kategoriako jarduerak
- Hirugarren sektoreko (merkataritza) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Hirugarren sektoreko (bulegoak) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Garajeak (ibilgailuak gordetzea), sotoko solairuan (48. artikulua).

5.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA BEREZIAK.

5.2.1. APROBETXAMENDUA. 2.1. EU.

Azalera: 1.692 m².

5.2.1.1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikuluen arabera).

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Behe solairua	Etxebizitza	130	1	130
Goi solairuak	Etxebizitza	260	1	260
Teilatupeko solairua	Etxebizitza	60	1	60
Guztira		450		450
Azalera konputagarria				1525
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				0,30
Etxebizitza kopurua				4

TESTU BATEGINA

4. agiria- Hirigintza fitxak

5.2.1.2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

5.2.1.3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

San Telmo kalean espaloiak (iparraldean) eta oinezkoentzako lotura (hegoaldean) egitea.

5.2.1.4. ERAIKITZEKO BALDINTZAK: Ereduaren berezkoa, eta San Telmo kalean dagoen dentsitate txikiaren antzekoa.

Lerrokadurak: 1/1.000 planoaren arabera.

Altuerak: teilatu hegala, 10 metro

Profila: Behe solairua + 2 + teilatupea.

5.2.1.5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua

Azalera espaloiak eta oinezkoentzako pasealekuak 300 m²

5.2.1.6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Xehetasunezko azterketa

Konpentsazio proiektua.

Urbanizazio proiektua.

5.2.1.7. PLANEAMENDUKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

100 metro espaloi egitea, San Telmo ermitarako ibilgailuentzako sarbidearen babes gisa.

Mendi hegaleko berdegunea lortzea, Ardantzabideko lagapenarekin lotzeko.

5.2.2. APROBETXAMENDUA. 2. EU

Azalera: 532 m².

5.2.2.1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikuluen arabera)

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m²
Behe solairua	Etxebizitza	110	1	110
Goi solairuak	Etxebizitza	110	1	110
Teilatupeko solairua	Etxebizitza	55	1	55
Guztira		275		275
Azalera konputagarria				532
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				0,51
Etxebizitza kopurua				2

5.2.2.2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

5.2.2.3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Espaloiak egitea, San Telmo kalean.

5.2.2.4. ERAIKITZEKO BALDINTZAK: Eremuaren berezkoa, eta San Telmo kalean dagoen dentsitate txikiaren antzekoa.

Lerrokadurak: 1/1.000 planoaren arabera.

Altuerak: teilatu hegala, 7 metro

Profila: Behe solairua + 1 + teilatupea.

5.2.2.5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua

Azalerak espaloiak eta oinezkoentzako pasealekuak 100 m²

5.2.2.6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Xehetasunezko azterketa

Konpentsazio proiektua.

Urbanizazio proiektua.

5.2.2.7. PLANEAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

40 metro espaloi egitea, San Telmo ermitarako ibilgailuentzako sarbidearen babes gisa.

HIRIGINTZA FITXA 03. HA. ODIETA-SAN JOSE**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.****1.1. PLANEAMENDUKO INFORMAZIOA.**

Hirigintza jarduerarako eremu honek, muga berriekin, honako hauek biltzen ditu: 1993ko Arau Subsidiarioetako 5. HGAko zati bat eta 9., 10. eta 11. HGAK, eta horiek "Odieta-San Jose auzoa" izeneko eremua osatzen dute. Azalera: 27.665 m²

1.2. EGITURA URBANOA.

1993ko Arau Subsidiarioetako zonakatzearen arabera, 5. HGAko zati bat Zumaiako hirigune historikoaren parte zen; San Juan Egoitza, hain zuzen. Harresiz kanpoko horrelako eraikuntza isolatu bati hobeto dagokio errebal izaera, hirigune historikoko izaera baino.

1.3. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Hirigintza jarduerarako eremu honen zati baterako (Alde Zaharraren parte den 5. HGA zaharrerako, hain zuzen) Birgaitzeko plan berezi bat idatzi da, baina oraindik behin betiko onartzeko dago.

1.4. EGITURA URBANOA.

Auzoaren egiturako elementu nagusia San Jose kalea da. Kale horrek ardatz bat osatzen du, hilerriko sarbidearen eta udaletxeak, komentuak eta merkatuak osaturiko multzoaren artean.

Horien paraleloan, goialdean, San Juan Egoitzaren eta hilerrirako sarbide errepidearen arteko lotura bidea egin da.

Odieta auzoa, bide sarean oinarrituta, hirigintza kalitate txikiko gunea da, Odieta frontoiak gainerako etxe saretik banantzen baitu. Beraz, espazio hori eraldatzeko ekintzak egitea gomendatzen da.

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA	:	Lurzoru urbanoa.
2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA	:	Bizitegirako (Odieta-San Jose auzoa).
2.3. KALIFIKAZIO XEHEKATUA	:	Espaloiak eta oinezkoentzako ibilbideak..... 2.155 m ² Espazio libreak (plaza)..... 1.100 m ² Aparkalekuak..... 275 m ²
2.4. DENTSITATEA	:	69 etxeb./ha
2.5. AREA FINKATUAREN KUDEAKETA	:	Barne erreformako plan berezia, birgaitzeko helburuz.

3. AREEN MUGAKETA.

Arau Subsidiario hauei dagokienez, Hirigintza jarduerarako eremu horrek hiri area bakar bat osatzen du: Odieta-San Joseko hirigune auzoaren HA.

4. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

Barne erreformako plan bereziak honako hauek sustatu behar ditu:

Odieta hirigintza eraldaketa, honako hauek lortzeko:

Ondare eraikia (Torreberri) birgaitzea.

Espazio libreak birkalifikatzea (Eusebio Gurrutxaga plaza barne).

Trafikoa, sarbideak eta lur gaineko aparkalekuak arautzea.

Birrekipamenduak : Torreberri eta eraikuntza berriko behe solairua.
San Juan Egoitza, Puntanuetara aldatzen bada.

Eraikuntza partzela bakoitzaren erabilerak eta gehienezko aprobetxamenduak ezartzea (kudeaketa unitate berriak zehaztea eta guzti). Partzela bakoitzaren eraikuntza baldintzak, aprobetxamenduak, lerrokadurak, profilak, eraikuntza altuerak ezartzea, bai eta ordezkapen eta lagapen baldintzak ere, baldin badagozkie.

5. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

5.1. PLAN BEREZIAK JASO BEHAR DITUEN OINARRIZKO ANTOLAMENDU XEDAPENAK.

- Erantsitako fitxaren kalifikazio xehekatua.
- Erantsiriko fitxan kalifikaturiko dotazio eraikinak.
- Eraikuntza berrirako eta aprobetxamendurako baldintzak.
- Dotazio eraikinak, Torreberri eta San Juan Egoitza.
- Hirigintza ordenantzak betetzen ez dituzten behe solairuetako erabilerak ordenazioz kanpokotzat jotzen dira.

5.2. PLAN BEREZIAN HONAKO HAUEK ZEHAZTU BEHAR DIRA:

Kalifikazio xehekatu zehatza.

Area urbanoaren aprobetxamendu eta eraikuntza baldintzak.

Espazio librean eta espazio eraikien erabilera eta jabari erregimenak.

Irisgarritasun baldintzak.

Birgaitze prozesuko eta hirigintza jarduerako kudeaketa eredua.

Oinarrizko azpiegiturak integratzea.

5.3. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK (ODIETA-SAN JOSE AUZOKO GAINERAKOA).

5.3.1. Aprobetxamendua.

Egungo eraikuntza garapena finkatzen da, eta horrekin area horri dagokion hirigintza aprobetxamendua agortu egiten da.

Ordenazioz kanpokotzat jotzen dira eraikin finkatuen fatxada lerro sailari erantsitako txabolak, eranskinak eta eraikin osagarriak, eta bota egin behar dira eremu osoa urbanizatzeko.

5.3.2. Eraikuntza.

Eraikitako azalera eta etxebizitzaren kopurua gehitzen ez duten mantentze eta birgaitze lanetarako bakarrik emango da baimena. Barne erreformako plan berezia onartzen ez den bitartean, behe solairua + 3 + teilatupea izango da baimendutako gehienezko profila.

5.3.3. Erabilera.

Berezko erabilera: Bizitegirako

Dagokion Erabilera erregimen orokorra Arau Subsidiarioen 11. artikuluan zehazturikoa da, honako xehetasun hauek kontuan hartuta:

Erabilera baimenduak

- 1. kategoriako jarduerak.
- Hirugarren sektoreko (merkataritza) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Hirugarren sektoreko (bulegoak) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Garajeak (ibilgailuak gordetzea), soto solairuan (48. artikulua).

5.4. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA BEREZIAK.

5.4.1. APROBETXAMENDUA. 3.1. EU.

AZALERA 1.118 m²

5.4.1.1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK.

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Soto solairua	Aparkalekua	150	1	150
Lehen solairua	Etxebizitza	150	1	150
Bigarren solairua	Etxebizitza	150	1	150
Teilatupeko solairua	Etxebizitza	60	1	60
Guztira		510		510
Azalera konputagarria				1.118
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				0,46
Etxebizitza kopurua				3

5.4.1.2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkioken lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

5.4.1.3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

San Juan Egoitza eta Hilerria lotzeko harmailadia.
Aparkaleku publikoko plazak sortzea, 10 gutxienez.

5.4.1.4. ERAIKITZEKO BALDINTZAK: Hirigune historikoaren berezkoak, dagoenaren antzekoa.
Lerrokadurak; 1/1500 planoaren arabera
Altuerak: teilatu hegalkak, 7 metro
Profila: Soto solairua + 2 + teilatupea.

5.4.1.5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua

Azalera	espaloiak eta oinezkoentzako pasealekuak	60 m ²
	Aparkalekuetarako gunekak	125 m ²

5.4.1.6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Xehetasunezko azterketa
Konpentsazio proiektua.
Urbanizazio proiektua.

5.4.1.7. PLANEAMENDUKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

- Hirigune historikoko goiko aldetik Arritokietako hilerriko sarbidea hobetzea, erraztea eta egituratzea, bai eta San Juan Egoitzaren inguruan dagoen aparkaleku publikoen gabezia konpontzea ere.

5.4.2. APROBETXAMENDUA. 3.2. EU. ODIETA

Azalera..... 4.210 m²

5.4.2.1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikuluen arabera).

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
3.2.1. EU Soto solairua	Garajeak	625	1	625
Behe solairua	Merkataritzakoa	445	0,45	200
Lehen solairua	Etxebizitza	625	1	625
Bigarren solairua	Etxebizitza	625	1	625
Hirugarren solairua	Etxebizitza	625	1	625
3.2.2. EU * Behe solairua	Ekip. soziokulturala	180	--	--
Lehen solairua	Etxebizitza	280	1	280
Bigarren solairua	Etxebizitza	280	1	280
Hirugarren solairua	Etxebizitza	280	1	280
Guztira		3.965		3.540
Azalera konputagarria				676
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				5,23
Etxebizitza kopurua				24+ 9 *

* 3.2. exekuzio unitatea udalaren lurzoruko erreserba aprobetxamendu moduan (9 etxeb.) planteatzen da. Fraideen frontoiari dagokio eta beharrezkoa izan daiteke eraldaketa urbanoko eragiketa bideragarria izateko. Laguntzak edo dirulaguntzak badaude (Izartzu programa, etab.) edo aprobetxamendua gauzatzea beharrezkoa ez bada, fraideen frontoia bere horretan utzi eta estali egingo da, gizarte erabileratarako.

5.4.2.2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

5.4.2.3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Odietako frontoi estalia aire zabaleko frontoia izateko egokitzea.
Arearen urbanizazio orokorra, Eusebio Gurrutxaga plaza barne.
Hala behar bada "fraideen frontoia" espazioa estaltzea.

5.4.2.4. ERAIKITZEKO BALDINTZA ZEHATZAK.

Hirigune historikoko berezkoak.
Torreberri berreskuratzea eta 5.3.2. EUko behe solairuko ekipamenduarekin lotzea eskailera publikoen azpitik.
Lerrokadurak: 1/1.000 planoaren arabera
Altuerak: teilatu hegalak, 12,50 metro, hirigintza fitxaren arabera.
Profila: Behe solairua + 3 + teilatupea
Torreberriko gehienezko profila: Behe solairua + 2 + teilatupea.

5.4.2.5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua
Azalera Eremu libreak 1.100 m²
Aparkalekuak 150 m²

5.4.2.6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Xehetasunezko azterketa.
Birpartzelatze proiektua.
Urbanizazio proiektua.

5.4.2.7.8. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

Hirigune historikoaren hego-mendebaldeko ertza eraldatzea, Eusebio Gurrutxaga (6. SO) plaza 1.100 m² inguru handitzeko aukera emateko.

HIRIGINTZA FITXA 04.HA. ARRANGOLETA ZABALGUNEA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**1.1. PLANEAMENDUKO INFORMAZIOA.**

Hirigintza jarduerarako eremu honetan, honako hauek biltzen dira, mugaketa barri batez: 1993ko Arau Subsidiarioetako 16., 17., 18. eta 19. HGAen areak. Horiek area homogeneo bat osatzen dute berrikuspen honetan: Arrangoletako zabalgunea.

04.1. eta 04.2. EUei dagokienez, 1990ean Xehetasunezko azterketa, Urbanizazio proiektua eta berdinbanaketa egin zen (ez zen Konpentsazio proiektu gisa izapidetu). Horrela exekutatu zen garai hartan 16/1. EZU deiturikoa. Agiri honek hango hirigintza irizpideei eta parametroei eusten die.

Azalera: 67.157 m²

Dentsitatea: 75 etxeb./ha

1.2. EGITURA URBANOA.

1993ko Arau Subsidiarioen zonakatzearen arabera, area horien eremuak Arrangoletako zabalgunea osatzen zuen, Urola ibaiaren ubideratze lanen ondoren sortutako hareatza lehortuz sortutakoa.

Julio Beobide ibilbidearen kaiaren luzetaranzko norabidean oinarrituta dagoen eraikin sare erregular samarra da. Hiri egitura finkatuak dentsitate txikia eta isolatua du kaiaren inguruan, eta dentsitate handia, jarraitua eta itxia atzerago, Talaimendiri itsatsita.

2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.**2.1. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO XEDAPENAK.**

Oro har, egungo lerrokadurak, sestrak eta bolumenen antolamendua finkatzen dira.

Arearen gehieneko okupazioari dagokionez, egungo okupazioa finkatzen da.

Espazio libre pribatuen antolamenduari eta erabilerei dagokienez, egungoak finkatzen dira

4.1. eta 4.2. EUetan bilbea osatzen da, aprobetxamendu antolamenduko irizpideei jarraituz (garapeneko planeamenduko 1.1. kapituluaren adierazita daude).

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilerak Kostei buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira.

2.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.**2.2.1. Aprobetxamendua.**

Egungo eraikuntza garapena finkatzen da, eta horrekin area horri dagokion hirigintza aprobetxamendua agortu egiten da, aipatutako esku-hartze zuzeneko unitateetan izan ezik.

2.2.2. Eraikuntza.

Eraikitako azalera gehitzen ez duten mantentze eta birgaitze lanetarako bakarrik emango da baimena, eta ordezkapenak badira oinplanoko okupazioa ere ezingo dute handitu.

2.2.3. Erabilera.

Berezko erabilera: Bizitegirako

Dagokion erabilera erregimen orokorra Arau Subsidiarioen 11. artikuluan zehazturikoa da, honako hauek kontuan hartuta:

Erabilera baimenduak

- 1. kategoriako jarduerak
- Hirugarren sektoreko (merkataritza) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Hirugarren sektoreko (bulegoak) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Garajeak (ibilgailuak gordetzea), sotoko solairuan (48. artikulua).
- Koste buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetakoak.

3. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA BEREZIAK.**3.3.1. APROBETXAMENDUA. 4.1. EU. J. BELMONTE KALEA, 4**

Azalera: 1.320 m²

1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikuluen arabera).

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Soto solairua	Garajeak	756	0,8	604,8
Behe solairua	Merkataritzakoa	320	1,5	480
Goi solairuak	Etxebizitza	1.792	1	1.792
Guztira		2.868		2.876,8
Azalera konputagarria				1.210
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				2,37
Etxebizitza kopuru estimatua				16

2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Espaloiak eta aparkalekuak egitea, Juan Belmonte 4an.

4. ERAIKITZEKO BALDINTZAK: Zabalgunearen berezkoa, J. Belmonte 2an dagoenaren antzekoa.

Lerrokadurak; 1/500 planoaren arabera. Xehetasuneko azterketaren (1990) jarraipena

Altuerak: teilatu hegala, 15,50 metro/J. Belmonte kaleko 2aren teilatu hegala jarraipena.

Profila: Soto solairua + 4 + teilatupea, hirigintza fitxaren arabera.

5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua

Azalerak	espaloiak eta oinezkoentzako pasealekuak	250 m ²
	Aparkalekuetarako gunekak	175 m ²
	Plazak	240 m ² (lur gaineko jabari publikoko zortasuna).

TESTU BATEGINA

4. agiria- Hirigintza fitxak

6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Xehetasunezko azterketa

Konpentsazio proiektua. Sotoko aparkalekurako sarbidea J. Belmonte kaleko 2ko garajeak eskrituran duen zortasunaren bidez izango da.

Urbanizazio proiektua.

Exekuzioko Unitatearen murriztea 04.2.E.U..kin aleko kudeaketean.

7. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

- J. Belmonte kaleko fatxada urbanoa errematatzea eta Garaje Peña lekuz aldatzea.

3.3.2. APROBETXAMENDUA. 4.2. EU. J. BELMONTE, 6

Azalera: 525 m²

1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK (34., 54. eta 55. artikuluen arabera).

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Soto solairua	Garajeak	254	0,8	203
Behe solairua	Merkataritzakoa	160	1,5	240
Goi solairuak	Etxebizitza	896	1	896
Guztira		1.310		1.339
Azalera konputagarria				456
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				2,93
Etxebizitza kopuru estimatua				8

2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzorua udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

3. HIRIGINTZA BALDINTZA ZEHATZAK.

Espaloiak eta aparkalekuak egitea, Juan Belmonte 6an.

4. ERAIKITZEKO BALDINTZAK: Zabalgunearen berezkoa, J. Belmonte 2an dagoenaren antzekoa.

Lerrokadurak; 1/500 planoaren arabera. Xehetasunezko azterketaren (1990) jarraipena.

Altuerak: teilatu hegala, 15,50. J. Belmonte, 2ko teilatu hegalaren jarraipena.

Profila: Sotoa + behe solairua + 4 + teilatupea, hirigintza fitxaren arabera.

5. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

Kalifikazio xehekatua

Azalera espaloiak eta oinezkoentzako pasealekuak 75 m²

6. HIRIGINTZA KUDEAKETA.

Xehetasunezko azterketa

Konpentsazio proiektua. Sotoko aparkalekurako sarbidea J. Belmonte kaleko 2 eta 4ko garajeak eskrituran duen zortasunaren bidez izango da.

Urbanizazio proiektua.

Exekuzioko Unitatearen murriztea 04.1.E.U.kin aleko kudeaketean.

7. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

- J. Belmonte kaleko fatxada urbanoa errematatzea.

HIRIGINTZA FITXA 05. HA. LARRETXO ZABALGUNEA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**

13/1. (49 etxebizitza) eta 13/3. (16 etxebizitza) hHirigintzako jarduera unitateen, 13/2 (etxebizitza bat) esku-hartze zuzeneko unitatearen, eta hotel talasoterapiaren garapenaren bidez bete dira, funtsean, 1993ko Arau Subsidiarioen helburuak. 13/2. hirigintzako jarduera unitatea ez da exekutatu; hori dela eta, gomendagarria litzateke hori hirigintza garapenetik kentzea, area hori bete-beteta dagoelako eta garapen urbanoari ezer gutxi gehitzen diolako.

Azalera: 29.522 m²

Dentsitatea: 72 etxeb./ha

2 . PROPOSATURIKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

Egungo antolamendua eta aprobetxamenduak finkatzea.

3. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA ETA AZALERAK.**

Kalifikazio xehekatuari dagokionez, honako erregimen hau ezartzen da.

- Komunikazio sistema.	
- Tokiko bide urbanoak.....	3.800 m ²
- Espaloiak eta oinezkoentzako areak.....	3.880 m ²
- Espazio libreen sistema	
- Espazio libreak: lorategiak.....	11.035 m ²
- Areako azalera, guztira.....	29.522 m ²

4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.**4.1. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO XEDAPENAK.**

Oro har, egungo lerrokadurak, sestrak eta bolumenen antolamendua finkatzen dira.

Arearen gehienezko okupazioari dagokionez, egungo okupazioa finkatzen da.

Espazio libre pribatuen antolamenduari eta erabilerei dagokionez, egungoak finkatzen dira

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilerak Kosteï buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabekoak izango dira.

4.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.**4.2.1. Aprobetxamendua.**

Egungo eraikuntza garapena finkatzen da, eta horrekin area horri dagokion hirigintza aprobetxamendua agortu egiten da.

Talasoterapia zentroari dagokionez, sestra gaineko batez besteko aprobetxamendua Zelaian lehendik zegoen eraikinari bakarrik dagokio, eta terrazaren zabalkuntza ustiapenera loturiko eraikin osagarri bat da, jardueraren bukaerarekin desagertu beharko duen eraikina, alegia.

4.2.2. Eraikuntza.

Eraikitako azalera eta etxebizitzaren kopurua gehitzen ez duten mantentze eta birgaitze lanetarako bakarrik emango da baimena.

4.2.3.Erabilerak.

Berezko erabilera: Bizitegirako

Dagokion erabilera erregimen orokorra Arau Subsidiarioen 11. artikuluan zehazturikoa da, honako hauek kontuan hartuta:

Erabilera baimenduak

- 1. kategoriako jarduerak.
- Hirugarren sektoreko (merkataritza) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Hirugarren sektoreko (bulegoak) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Garajeak (ibilgailuak gordetzea), sotoko solairuan (48. artikulua).
- V. Esteibarren aroztegiak egun duen prekarioko erabilerak, 1998 azaroaren 14an behin-behineko onartutakoa, bere jardueran bukatu beharko du 2004ko azaroaren 14an, karga eta ordainsaririk gabe.
- Koste horuzko Legearen 24. eta 25. artikuluetakoak.

Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

5.3.4.3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Iparraldean espaloia egitea eta hegoaldean kalea, bai eta 17.2. eta 17.3. EUn kale berriarekiko lotura ere.

5.3.4.5. ERAIKITZEKO BALDINTZA ZEHATZAK: Hirigune historikoaren berezkoak.

Elizalde baserria berreraikitzea, jatorrizko baserriaren hormak errespetatuz eta haren lerrokadurak finkatuz. Tipologia, estalki eta materialei dagokienez, arkitektura herrikoia irizpideei jarraituz eraikitzea. Jatorrizko baserriko bordak, eranskinak eta txabolak kentzea.

5.3.4.6 KUDEAKETA BALDINTZAK.

Eraikina exekutatzeko proiektua (lagapen eremuari dagokion kanpoko urbanizazioari buruzko kapitulua barne).

5.3.5. GAINERAKO AREAREN APROBETXAMENDUA.

Arau Subsidiario hauen berrikuspina baino lehen zeuden beste partzela guztien tipologia ezaugarriak kontuan hartuta, horietan honako hauetarako baimena ematen da: dauden eraikinak zabaltzekoa, edo eraikin berriak egitekoa, baldin eta oinplano okupazioak dagokion partzelaren %15 baino gehiago hartzen ez badu, eta sabai eraikigarri osoak (dagoena gehi programaturikoa) partzela horren %20 gainditzen ez badu. Lan horiek Xehetasunezko azterketa baten bidez kudeatuko dira, antolamendua eraikuntza proiektuko parametroen arabera egiteko. Xehetasunezko azterketak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

Oinplano okupazio osoa	partzelaren azaleraren %15 baino gutxiago
Sabai eraikigarri osoa	partzelaren azaleraren %20 baino gutxiago
Mugetikiko gutxieneko distantzia	5 metro
Baimendutako gehienezko profila	Behe solairua + lehen solairua + teilatupea
Lurzoruaren eta teilatu hegalararen arteko gehienezko altuera	7 metro
Estalkiaren tipologia	inklinatua
	%30 - %35
Bide publikorako distantzia	8 metro

HIRIGINTZA FITXA 18. HA. KORTA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Zumaiako Udalak Korta poligonoko lur gehienak erostearekin batera, poligono horren hirigintza garapena hasi zen. Gaur egun, eremu horren ia %82 okupatuta dago.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

32. HGAREN Barne erreformako plan bereziaren (1993) arabera garatu da, honako hauen bidez:

- Birpartzelatze proiektua (1994).
- Urbanizazio proiektua (1994).
- Xehetasunezko azterketa (1995).

Garapeneko planeamenduak, behin betiko onetsia, Koste buruzko Legeari buruzko aldeko txostenak ditu.

1.2. EGITURA URBANOA.

Zumaiako industria gune garrantzitsuena da. Poligonoaren mendebaldeko muturrean berdeguneetarako lurak laga dira, Beduako ingurunearekin trantsizio zona bat egiteko eta ingurune hura babesteko. Horrekin bat egin beharko du funtzio eta paisaia aldetik.

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : URBANOA.
 2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : INDUSTRIALA.
 2.3. AZALERAK : 211.813 m²

3. ORDENANTZA XEHEKATUAK.**3.1. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO XEDAPENAK :**

Erabilera xeheaturiko zonak	Aprobetxamendua
Industria partzela eraikigarria	87.629 m ²
Industria partzela eraikiezina	7.898 m ²
Merkataritza partzela eraikigarria	1.735 m ²
Merkataritza partzela eraikiezina	795 m ²
Gizarte ekipamendua	2.603 m ²
Espazio libreak	29.091 m ²
Bideak eta aparkalekuak	78.486 m ²
Azpiegitura eta zerbitzu zentroak	3.576 m ² *

* Azpiegitura zentroak: 3000 m².

Zerbitzuak: 576 m².

3.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, ERABILERA ETA JABARI BALDINTZA BEREZIAK:

Zona	IPE (m ²)	IPEE (m ²)	
1	8.535	806	IPE: industria partzela eraikigarria.
2	13.088	1.150	IPEE: industria partzela eraikiezina.
3	19.255	1.449	
4	11.203	1.103	
5	15.085	1.745	
6	13.434	1.167	
7	7.029	478	

IPEren azalera	87.629 m ²
Sabai eraikigarria.....	132.443 m ²
Oinplanoko okupazioa.....	0,41 m ² /m ²
Gehienezko aprobetxamendua.....	0,62 m ² /m ²

3.3. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK:

Berdegunek natura esku-hartzerako irizpideak beharko ditu Beduako uhartean inguruko trantsizio zona baita. Zona horren hego-ekialdean, hegiaren ezpondaren ondoan, Garbigunea jarriko da (hori azpiegitura eta zerbitzu moduan zenbatuko da 3.1. atalean)

4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

- 4.1. PLANEAMENDUA** : 7. partzelako Xehetasuneko azterketa.
- 4.2. URBANIZAZIOA** : Berdegunerako lan osagarrien hirigintza proiektu berezi bat egin beharko da.
- 4.3. ERAIKUNTZA** : Gehienezko altuera 9 metrokoa izango da. Salbuespenez eta behar bezala frogatuz gero, ekoizpen prozesuaren ezaugarrien eraginez altuera gehiago beharko balitz, Zumaiako Udalak hori onetsi dezake. Dena den, ibaira ematen duten fatxaden altuerak 9 metrokoa izan beharko du, eta altuera handiagoek fatxada horrekiko 6 metroko atzeraemangunea izan behar dute, gutxienez. Eraikuntza proiektuaren idazketan arkitektoaren batek parte hartu beharko du, proiektuko diseinua poligonoak lortu duen irudiarekin bat datorrela bermatzeko. Eraikuntzaren atzerapena: 20 metro itsaso eta lehorreko jabari publikotik. Garbigune proiektuaren exekuzioan arkitektura eta paisaia neurriak hartuko dira, multzoa ingurunean integratzen dela bermatzeko.
- 4.4. KUDEAKETA** : Areako jabeek kontserbazio entitatea sortu beharko dute legez (Lurzoruaren Legearen Erregelamendu Orokorreko 68. artikulua).
- 4.5. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA** : Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

4.6. KOSTEI BURUZKO LEGEAREN AFEKTAZIOAK.

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilerak Kostei buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira.

HIRIGINTZA FITXA 19. HA. OIKIA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.****1.1. PLANEAMENDUKO INFORMAZIOA.**

Hirigintza jarduerarako eremu honek, mugaketa berri batez, 30. eta 36. HGAK hartzen ditu. Bi kasuetan, lurzoru urbanoaren mugaketa egokitu eta murriztu egiten da.

Azalera: 45.026 m².

1.2. EGITURA URBANOA.

1993ko Arau Subsidiarioetako zonakatzearen arabera, area horien eremuak Oikia auzoko hirigunea osatzen zuen.

1.3. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Hirigintza jarduerarako eremu honi dagokionez, Arau Subsidiarioen aldaketa bat bakarrik idatzi da, kirol ekipamenduko sistema orokorra (hau da, frontoi estalia) lekuz aldatzeko.

1.4. EGITURA URBANOA.

San Bartolome elizaren inguruan kokatutako baserri bananduak dira Oikiaren hirigunearen oinarria. Zeharretara zeharkatzen duen errepidearen (18. SO) eta hegoaldeetik Iparragirre eta Goiburu baserriak Lasalde-Otzango multzoarekin lotzen dituen herri errepidearen inguruan egituratuta dago Oikia.

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA	: Lurzoru urbanoa.
2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA	: Bizitegirako, Oikia hirigunea.
2.3. KALIFIKAZIO XEHEKATUA	: Dentsitate txikiko bizitegia. Eskola, erlijio eta gizarte ekipamenduak. Oikiako frontoia sistema orokorra.
2.4. DENTSITATEA	: 27 etxeb./ha

3. AREEN MUGAKETAK.

Arau Subsidiario hauei dagokienez, Hirigintza jarduerarako eremu honek, hiri area bakar bat hartzen du: Oikia hiriguneko HA. Horretan, bi exekuzio unitate mugatzen dira, eta horiek elkarren artean independenteak dira.

4. HIRIGINTZA IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

1. Area Zumaiako auzo historiko definitzea.
2. Dentsitate txikiko bizitegi garapena.
3. Zumaiaren barruan garatzea, dagoeneko eraikitakoa finkatuz, eta eraikitzen dena egungo egiturara egokituz.
4. Espazio libreak birkalifikatzea: aparkalekuak sortzea eta Oikiako plaza (bai eta plaza horren eta eliza eta frontoiaren arteko lotura ere) oinezkoentzat bihurtzea.
5. Trafikoa eta irisgarritasuna arautzea.
6. Berrekipamenduak: Eskola zabaltzea. Gizarte ekipamendua apaiz-etxean.
7. Ordezkapen ordenantza 1., 2. eta 3. EZUetarako.

5. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA BEREZIAK.**5.1. APROBETXAMENDUA. 19.1. EU.**Azalera 5.774 m²

GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK.

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Soto solairua	Garajeak	936	0,85	795
Behe solairua	Etxebizitza	936	1	936
Lehen solairua	Etxebizitza	936	1	936
Guztira		2.808		2.667
Azalera konputagarria				5.774
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				0,46
Etxebizitza kopurua				13

5.2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA:

Erabilera eta jabari publikoko lurzorua udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

5.3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Kaleak, espaloiak eta Oikiako hiriguneko kale egituratzaileekiko lotura egitea. Aparkalekuak sortzea, frontoi ondoan (45 leku, gutxienez).

5.4. ERAIKUNTZA BALDINTZA ZEHATZAK.

Arkitektura herrikoia irizpideei jarraituz eraikitzea, tipologia, estalkiak eta materialak errespetatuz.

5.5. KUDEAKETA BALDINTZAK.

Konpentsazio proiektua.
Xehetasunezko azterketa.
Urbanizazio proiektua.

6. APROBETXAMENDUA.19.2. EU.Azalera 3.450 m²

GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK.

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Soto solairua	Garajeak	630	0,85	535,5
Behe solairua	Etxebizitza	630	1	630
Lehen solairua	Etxebizitza	630	1	630
Teilatueko solairua	Etxebizitza	330	1	330
Guztira		2.220		2.125,5
Azalera konputagarria				5025
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				0,42
Etxebizitza kopurua				9

6.2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA:

Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkikeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

6.3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Kaleak, espaloiak eta Oikiako hiriguneko kale egituratzaileekiko lotura egitea.
Aparkalekuak sortzea, GI-3812 errepidearen ondoan (14 leku, gutxienez).

6.4. ERAIKUNTZA BALDINTZA ZEHATZAK.

Arkitektura herrikoia irizpideei jarraituz eraikitzea, tipologia, estalkiak eta materialak errespetatuz.

6.5. KUDEAKETA BALDINTZAK.

Konpentsazio proiektua.
Xehetasunezko azterketa.
Urbanizazio proiektua.

7. APROBETXAMENDUA. 19.3. EU.

Azalera 6.630 m²

7.1. GEHIENEZKO APROBETXAMENDURAKO BALDINTZAK.

1. IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA, m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Soto solairua	Garajeak	3.200	0,60	1.920
Behe solairua	Etxebizitza	3.200	1	3.200
Lehen solairua	Etxebizitza	3.200	1	3.200
Teilatupea	Etxebizitza	400	1	400
Guztira		10.000		8.720
Azalera konputagarria				6.630
Batez besteko aprobetxamendua m ² /m ²				1,31
Etxebizitza kopurua				32
BOE (gutxi gorabeherakoa)				20 *

* Hori gauzatzea 06. HAren kudeaketatik dator.

7.2. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA: Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkikeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

Lurzorua lagatzea, eskola dotaziorako (1.586 m²)

7.3. URBANIZAZIO BALDINTZA ZEHATZAK.

Ekialdean eta mendebaldean dauden kaleak zabaltzea, eta horien arteko lotura egitea oinezkoentzat, ibilbideak egituratzeko.

Irisingarritasuna Sustatzeko Legea betetzea.
Aparkalekuak egitea (16 leku, gutxienez).

7.5. ERAIKUNTZA BALDINTZA ZEHATZAK.

Arkitektura herrikoia irizpideei jarraituz eraikitzea, tipologia, estalkiak eta materialak errespetatuz.

7.6. KUDEAKETA BALDINTZAK.

Barne erreformako plan berezia (lurzorua eskola dotaziorako lagatzen dela bermatzeko) edo, hala badagokio, Xehetasunezko azterketa.

Konpentsazio proiektua.

Urbanizazio proiektua.

8. AREAREN GAINERAKOAREN APROBETXAMENDUA.

Egungo eraikuntza garapena finkatzen da, eta horrekin area horri dagokion hirigintza aprobetxamendua agortu egiten da. Eraikitako azalera eta etxebizitzaren kopurua gehitzen ez duten mantentze eta birgaitze lanetarako bakarrik emango da baimena kolektibo etxebizitzetan.

Aurrekoari kalterik egin gabe, ordezkapen ordenantza bat ezartzen da 1., 2. eta 3. EZUetarako. Horren bidez, dauden etxebizitzetarako hirigintza baldintza hobeak ezartzen dira. Sabai eraikigarriari dagokionez, 120 m²-tan ezartzen da parametro hori, etxebizitza horietako bakoitzerako.

Dagokien eraikitze proiektuaren bidez gauzatuko da hori.

Aldi berean, Arau Subsidiarioen berrikuspena egin aurretik hiri bilbean dauden beste etxebizitza familiabakar edo baserri guztiei dagokienez, honako hauek ematen da baimena: dauden eraikuntzak zabaltzeko edo eraikuntza berriak egiteko, baldin eta Xehetasunezko azterketa baten bidez kudeatzen badira. Azterketa horren bidez eginiko antolamenduak honako parametro hauen eta 54.3 artikuluen arabera izan behar du :

Oinplano okupazio osoa	partzelaren azaleraren %15 baino gutxiago
Sabai eraikigarri osoa	partzelaren azaleraren %20 baino gutxiago
Mugetik gutxieneko distantzia	5 metro
Baimendutako gehienezko profila	Behe solairua + lehen solairua + teilatupea
Lurzoruaren eta teilatu hegalararen arteko gehienezko altuera	7 metro
Estalkiaren tipologia	inklinatua, %30 - %35
Mugetik distantzia	5 metro
Bide publikorako distantzia	8 metro

Dena den, eskaturiko edozein lizentzia egintzak jatorrizko eraikinetako txabolak, eranskinak, bordak eta abar kendu beharra dakar berarekin.

HIRIGINTZA FITXA 20. HA. ESTAZIOA II**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**

Zumaiako 1993ko Arau Subsidiarioetako 37. HGari dagokio. Ez da garatu. Geroago, Arau Subsidiarioen aldaketa egin zen (behin betiko onetsia, 1994ko apirilaren 19an), eta horrek 21., 22. eta 37. EZUei eragin zien. Horren bidez, 37/1. hirigintza jarduerarako unitateari zegokion zatia ezabatu egin zen.

Arearen azalera: 7.421 m²

Dentsitatea: 46 etxeb./ha

2 . PROPOSATURIKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Dauden antolamendua eta aprobetxamenduak finkatzea.

Estazioa poligono industrialaren hurbiltasuna dela-eta (Egurko eta Ortiz enpresen partzelak, hain zuzen), bizitegirako eremu berriak garatzea bateraezina dirudi.

3. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

3.1. LURZORUAREN SAILKAPENA: Urbanoa.

3.2. KALIFIKAZIO GLOBALA: Bizitegirako.

4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.**4.1. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO XEDAPENAK.**

Oro har, egungo lerrokadurak, sestrak eta bolumenen antolamendua finkatzen dira.

Arearen gehienezko okupazioari dagokionez, egungo okupazioa finkatzen da.

Espazio libre pribatuen antolamenduari eta erabilerei dagokionez, egungoak finkatzen dira.

4.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.**4.2.1. Aprobetxamendua.**

Egungo eraikuntza garapena finkatzen da, eta horrekin area horri dagokion hirigintza aprobetxamendua agortu egiten da.

4.2.2. Eraikuntza.

Eraikitako azalera eta etxebizitzaren kopurua gehitzen ez duten mantentze eta birgaitze lanetarako bakarrik emango da baimena.

4.2.3. Erabilera.

Berezko erabilera: Bizitegirako

Dagokion Erabilera erregimen orokorra Arau Subsidiarioen 11. artikuluan zehazturikoa da, honako xehetasun hauek kontuan hartuta:

Erabilera baimenduak

- 1. kategoriako jarduerak.
- Hirugarren sektoreko (merkataritza) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Hirugarren sektoreko (bulegoak) jarduerak behe solairuan (49. artikulua).
- Garajeak (ibilgailuak gordetzea), sotoko solairuan (48. artikulua).

HIRIGINTZA FITXA 1. SEKTOREA PUNTANUETA II

1. Eremuaren azalera..... 34.870 m².
2. Gehienezko aprobetxamendurako baldintzak: 72 etxeb./ha.

IRABAZIZKO APROBETXAMENDUA	ERABILERA XEHEKATUA	SABAI ERAIKIGARRIA m ²	INDIZEA	SABAI ERAIKIGARRI HOMOGENEIZATUA m ²
Soto solairua	Garajeak/trastelekuak	8.000	0,90	7.200
Behe solairua	Merkataritza-etxebizitza	5.800	0,60-1	5.800
Goi solairuak	Etxebizitza	35.000	1	35.000
GUZTIRA		48.800		48.000
Azalera konputagarria				34.870
Aprobetxamendu eredua m ² /m ²				1,37
Etxebizitza kopurua				250
BOE				%65

3. Jarduketa sistema..... DESJABETZEA.
4. Lagapena eta berdinbanaketa:..... Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe.
5. Urbanizazio baldintza zehatzak..... Oinezkoentzako bulebarra (20 metroko zabalera) 2. sektorearekiko ardatzean. Zubi berri bat, Narrondo ibaiaren gainetik, eta 15. HAKo bidearekin lotzeko loturak.
6. Eraikitze baldintzak:
 Lerrokadurak..... Finkoak, bulebarrean. Gainerakoan, Plan partzialaren arabera.
 Teilatu hegaleen altuerak..... Lurrarekiko 19,5
 Profilak..... Sotoa + behe solairua + 5 + teilatupea.
7. Hirigintza erregimena.

Kalifikazio xehekatua (orientagarria) Azalera m ² .	Bideak eta aparkalekuak	14.000
	Espaloiak eta oinezkoentzako pasealekuak	2.000
	Espazio libreak	4.500

8. Hirigintza kudeaketa..... Plan Partziala.
Desjabetze plana. Udalak dagoeneko baditu ondasunak area horretan.
Urbanizazio proiektua.
9. Antolamendu irizpide eta helburu orokorrak.
- Zumaiako hirigintza garapena, hegoaldean, Puntanueta 2. zabalgunearen zehar. Narrondo auzoarekin elkartzen hastea, Urola-Kosta Lurralde plan partzialean adierazitakoari begira (5. sektoreko bateragarritasun espediente).
 - Sustapen publikoko BOEn garapen integrala lortzea.
Bide sarea antolatzea, Basustarekin eta N-634 errepediarekin.

HIRIGINTZA FITXA: 2. SEKTOREA - PUNTANUETA I

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Berrikuspenaren 1. zabalgunearen garapena, bertan 250 etxebizitza kokatzeko (horietatik %65 BOEekoak izango dira), 12 eraikuntza bloketan, berdegune baten inguruan antolatuta.

1.1. GARAPENEKO PLANEAMENDUA. (Behin betiko onetsia)

Arau Subsidiarioen aldaketa, Zumaiako lurzoru eremu urbanizaezin bati (2. sektore berria, Puntueta) dagokiona (01-11-04). Eremu horretako jarduera sistema desjabetzea zen.

2. sektoreko (Puntueta) plan partziala (01-12-11).

1. eta 2. Xehetasunezko azterketak.

1.2. EGITURA URBANOA.

Plan partzialean adierazten zen moduan, eskola erabilerarako lagatako lurzoria (2.500 m²) etorkizunean 28/1. hirigintza garapeneko unitateko eskola aurreikuspenekin elkartzeko moduan kokatzen zen. Arau Subsidiarioen berrikuspen hauetan eremu hori 9. SO n sartzen da, kudeaketa errazteko; beraz, 2. sektoreko azalera zuzendu egin da.

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Urbanizagarria (urbanizazio prozesua hasita dago).

2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : Plan partzialaren arabera.

2.3. AZALERAK : 33.499 m²

3. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

(2. sektoreko plan partziala)

3.1. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO XEDAPENAK

Bizitegirako programatua:	6.880 m ²
Bide sarea eta espaloiak:	10.893 m ²
Espazio libreak	11.070 m ²
Haurrentzako jolas lekuak	750 m ²
Gizarte dotazio publikoak	600 m ²
Eskola dotazioa	2.500 m ²

3.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, ERABILERA

ETA JABARI BALDINTZA BEREZIAK :

	ERAIKINA, 1. MOTAKOA (m ²)	8 BLOKE, 1. MOTAKOAK (m ²)	ERAIKINA, 2. MOTAKOA (m ²)	3 BLOKE, 2. MOTAKOAK (m ²)	GUZTIRA (m ²) PLAN PARTZIALA	GUZTIRA (m ²) ARAU SUBSIDIARIOAK
Oinplano okupazioa	560					
Azalera eraikia, garajeak	280	2.240	400	1.200	3.440	
Azalera eraikia, bizitegirako	2.000	16.000	3.000	9.000	25.000	
Azalera eraikia, trastelekuak	112	896	168	504	1.400	
					30.000	30.000

3.3. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK:

Plan partzialean ekipamendu mistoa aurreikusten da:

Merkataritzako erabilera, hautazkoa (dagoen hipermerkatuaren hurbiltasunagatik), dotazio erreserbako lurzoruaren behe solairuan, eta gizarte ekipamendua goi solairuetan, aldameneko 10. HAKo gizarte ekipamenduari lotuta.

Urbanizazioari dagokionez, eraztun itxurako bide perimetrala proposatzen da. Barnean, berriz, parke bat edo berdegune bat egitea proposatzen da.

HIRIGINTZA FITXA 3. SEKTOREA - GUASCOR

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

1.1. GARAPENEKO PLANEAMENDUA.

6. sektoreko plan partziala (1993).

Jarduera estatutuak eta oinarriak.

Konpentsazio proiektua. Sektoreko aprobetxamenduaren legezko lagapenari dagokionez, jendaurrean jartzeko fasean, Zumaiako Udalak alegazioak aurkeztu zituen legeak derrigortzen duen aprobetxamenduaren %10aren lagapenari dagokionez.

1.2. EGITURA URBANOA.

Gorostiarekin batera, Zumaiako gunen industrial garrantzitsuenaren parte da.

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Urbanizagarria.

2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : 6. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.

2.3. AZALERA : 68.608 m²

3. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

3.1. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO XEDAPENAK : Plan partzialaren arabera

3.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA BEREZIAK

: Interes publikoko eta sozialeko zerbitzuak	2.748 m ²
Espazio libreen sistema	10.391 m ²
Bideak eta aparkaleku publikoak	23.496 m ²
Lurzoru industrial finkatua	9.062 m ²
Lurzoru industrial programatua	21.400 m ²
Etxeberri baserria	121 m ²
Oinplano okupazioa	0,445 m ² /m ²
Sabai eraikigarria	0,6 m ² /m ²

3.3. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK : Plan Partzialaren arabera

4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

4.1. PLANEAMENDUA : 6. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.

4.2. URBANIZAZIOA : 6. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.

4.3. ERAIKUNTZA : 6. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.

4.4. KUDEAKETA : 6. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.

Konpentsazio proiektua. (izapide fasean).

Arau Subsidiarioen berrikuspenaren behin betiko onarpenetik bi urte pasa eta gero, kargen eta onuren berdinbanaketa egin ez bada, Zumaiako Udalak jarduera sistema aldatu egingo du eta lankidetzeta sistema ezarriko du kudeaketa egiteko.

Areako jabeek kontserbazio entitatea sortu beharko dute legez (Lurzoruaren Legearen Erregelamendu Orokorreko 68. artikulua).

Erabilera eta jabari publikoko bide sarean, erabilera pribaturako baimena emateko aukera ezartzen da. Horretarako, aldez aurretik eskaera egin beharko da, bai eta erabilera hori arrazoitu ere, eta, betiere, indarrean dauden legezko xedapenak bete behar dira.

4.5. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA:

Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

Udalari dagokion sektoreko batez besteko aprobetxamenduaren lagapenak ordenaturiko eremu guztiari dagokiona izan beharko du.

HIRIGINTZA FITXA 4. SEKTOREA - XEY

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

1.1. GARAPENEN PLANEAMENDUA.

7. sektoreko plan partziala (1993).
Urbanizazio proiektua (1995). Exekutatu gabe.
Konpentsazio proiektua, idatzi gabe.

1.2. EGITURA URBANOA.

Gorostiagaekin batera, Zumaiako gunen industrial garrantzitsuenaren parte da.

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Urbanizagarria.
2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : 7. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.
2.3. AZALERAK : 142.250 m²

3. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

3.1. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO XEDAPENAK	: Plan partzialaren arabera	
3.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZA BEREZIAK	: Lurzoru industrial finkatua	40.280 m ²
	Lurzoru industrial programatua	26.574 m ²
	Sabai eraikigarria	33.218 m ²
	Espazio libreen sistema	33.496 m ²
	Bideak eta aparkalekuak	22.479 m ²
	Industria partzela eraikiezina	10.721 m ²
	Merkataritza ekipamendua	1.500 m ²
	Gizarte ekipamendua	1.500 m ²
	Kirol ekipamendua	5.700 m ²

3.3. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK: Plan Partzialaren arabera.

4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

- 4.1. PLANEAMENDUA : 7. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.
4.2. URBANIZAZIOA : 7. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.
4.3. ERAIKUNTZA : 7. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.
4.4. KUDEAKETA : 7. sektoreko plan partzialaren (1993) arabera.
Konpentsazio proiektua. (izapide fasean).
Xehetasunezko azterketa, hirigintza aprobetxamendua babes zortasuneko afektazioetara egokitzeko.

Areako jabeek kontserbazio entitatea sortu beharko dute legez (Lurzoruaren Legearen Erregelamendu Orokorreko 68. artikulua).

Erabilera eta jabari publikoko bide sarean, erabilera pribaturako baimena emateko aukera ezartzen da. Horretarako, alde zuzeneko eskaera egin beharko da, bai eta erabilera hori arrazoitu ere, eta, betiere indarrean dauden legeko xedapenak bete behar dira.

4.5. LAGAPENA ETA BERDINBANAKETA:

Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe. Ezar dakizkiokeen lege xedapenen arabera udalari dagozkion irabazizko aprobetxamenduko lursailak ere laga egin beharko zaizkio.

Irabazizko aprobetxamenduaren legezko lagapenak ordenaturiko eremu guztiari dagokiona izan beharko du.

4.6. KOSTEI BURUZKO LEGEAREN AFEKTAZIOAK.

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilerak Kostei buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira.

Hirigintza fitxa honen behin betiko onespena etenik dago, Diputatuen Kontseiluak 2004ko otsailaren 17an hartutako Akordioaren bidez.

HIRIGINTZA FITXA 6. SEKTOREA. NARRONDO

Hirigintza fitxa honen behin betiko onespena etenik dago, Diputatuen Kontseiluak 2004ko otsailaren 17an hartutako Akordioaren bidez.

HIRIGINTZA FITXA 1. SO - PAOLA ETA INPERNUPEKO LABARRAK

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA. Ez dago aurreikusita.

1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA. Lurralde antolamenduaren gidalerroak, Kosteï buruzko Legea.

1.3. EGITURA URBANOA.

Lurraldearen egitura organikoaren elementu konfiguratzailea da, Arrangoleta zabalgunearen amaiera delako (Kresalako espazio libreetan), eta herria hor amaitzen delako, paolaren tontorrean, eta, itsasoarekin bat eginez, Inpernupen.

1.4. EREMUAREN AZALERA. 66.275 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Lurzoru urbanizaezina: Babes berezia.

2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : Espazio libreen sistema orokorra: Paola eta Inpernupeko labarrak.

2.3. AREEN MUGAKETA : Unitate morfologiko bakartzat jo behar da, Juan Belmonte kalearen eta itsasoaren (hau da, Inpernupen, paolaren tontorra eta paolaren eta kanpoko dikearen artean sortzen den igerileku naturala) arteko area .

2.4. ITSAS-LEHORTAR EREMUAREN MUGAKETA : Kosta zerbitzuak emandako 3.2.1. planoaren arabera.

3 . PROPOSATURIKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Sistema orokorraren mugaketa berriarekin, Inpernupen eta igerilekuko eremuen kalifikazioa lortzea, dauden exekuzio proiektuen bitartez.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Espazio libreen sistema orokorra.
Natura intereseko 1. area.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Arau Subsidiarioen 3. agiriaren arabera.

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilera Kosteï buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira.

3.3. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Aprobetxamendua: Paolaren eta museoaren zabalkuntza beharren arabera.

Eraikuntza: Paola finkatzea.

Jabaria: Publikoa.

Erabilera globala: Itsas pasealekua.

Igerileku naturala.

Plaza urbanoa.

Erabilera baimenduak: Kosteï buruzko Legean baimendutakoak.

Erabilera debekatuak: Kosteï buruzko Legean debekatutakoak.

3.4. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK.

1.1. jarduera unitate bereziari eta 1.2. jarduera unitate bereziari dagozkien igerileku naturalaren exekuzio proiektuaren (R. Uribe) eta itsas-lehorreko sarbidearen exekuzio proiektuaren (L. Pagaegi) arabera. Proiektu horiek Kosten Zuzendaritzan aurkeztuta daude, exekutatzearen zain.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipaturiko eremuan eginiko esku-hartze guztiek jabari publikoko lurzoruetan eragiten dutenez, horiei dagozkien baimenak izan behar dituzte, bai eta Kosten Legean kasu bakoitzerako ezartzen diren xedapenetara egokitu ere.

HIRIGINTZA FITXA 2. SO - SANTIXO**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**

Santixoko hondartza eta duna. Santixo hondartza hedatze fasean dago, 7. SOren kanpoaldeko dikea eta kontradikea zabaltzeak eraginiko haren mugimenduagatik.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Ez da egin.

1.2. EGITURA URBANOA.

Espazio natural babestua, hauek osatzen dute: Santixoko hondartzak, Zuloagako dunak eta 7. SOren (portua) aldameneko hezeguneak. Zumaiako eta Getariako udalerrien lurra dira.

Area funtzionalaren aisialdirako lekua.

Santixoko hondartzan eraikin bat dago, eta, horretan, gaur egun ez da ustiapen lizentzia oinarri hartuta egin zitekeen inolako jarduerarik egiten.

1.3. EREMUAREN AZALERA..... 145.332 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Urbanizaezina: Babes berezia.

2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : Komunitate ekipamenduko zona. Sistema orokorra.
Natura intereseko 3. area.

2.3. AREEN MUGAKETA : Arau Subsidiario hauei dagokionez, sistema orokor honek, area bakar bat osatzen du, eta hiru azpiarea ditu:

1. interes area. Zuloaga finka.....	32.762 m ²
2. interes area. Area kolonizatua.....	24.691 m ²
3. interes area. Kolonizazio potentzialeko area...	43.058 m ²
4. interes area. Santixoko duna.....	36.916 m ²
5. interes area. Espaloia eta oinezkoentzako areak..	7.905 m ²

2.4. EZARRI BEHARREKO ARAUAK : Lurralde antolamenduaren gidalerroak, Koste buruzko Legea

2.5. ITSAS -LEHORTAR EREMUAREN MUGAKETA : Kosta zerbitzuak emandako 3.21. planoaren arabera

3. PROPOSATURIKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Eremuaren antolamendu integrala: sarbideak, zonakatzeko xehekatua, zerbitzu iraunkorretarako eta sasoiko zerbitzuetarako zonak, oinezkoentzako eremuak hobetzea eta leheneratzea, eta Orruako hondartzarako lotura egitea.

Zuloaga finkako eraikuntza eta landaretza finkatzea.

Hondartzaren beharrak garatzea (aparkalekuak) bai eta Zuloaga museoarenak ere (handitzea), aldameneko 3. SOn.

Dagoen eraikina ordenazioz kanpo uztea.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA. Espazio libreen sistema orokorra: Santixoko hondartza eta duna.

4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.**4.1. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARIA ETA ERABILERA BALDINTZAK.**

Aprobetxamendua. Santixon behar den eraikuntzarako (hondartza zerbitzuak) baimena ematen da. Zuloaga museoan (kanpoko frontoirantz) beharrezkoa den zabaltze txikiren bat egiteko baimena ematen da. Horrek egungo eraikuntzarekiko (Eusko Jaurlaritzako kultur ondarearen katalogazio eremuari dagokion eraikuntza, alegia) errespetu eta integrazio irizpideak bete beharko ditu. Zabaltze lan nagusiak aldameneko 3. SOn egin beharko dira.

Eraikuntza. Eraikuntzaren ezaugarriak dagozkion oinarrizko proiektuan eta exekuzio proiektuan finkatuko dira, Plan bereziaren bidez.

Jabaria Pribatua Zuloaga finkan (03. hirigintza jarduerako arean)
Publikoa gainerakoan. Itsas-lehorreko jabari publikoa.

Erabilera Erregimen orokorra artikulua nagusiaren arabera: hondartza
Xehetasunak: erabilera baimenduak: instalazioak: hondartza zerbitzuak.

Komunak.
Kabinak.
Aldagelak.
Taberna.
Biltegia.
Berdegunea, oinezkoentzako gunea.
Museoa.

Erabilera debekatuak: industrialia.
Bizitegirakoa. (zaintzakoa izan ezik, museoaren jabetzakoa).
Erabilera horiek Kosteak buruzko Legearen aldi baterako
laugarren xedapenean ezarritakoak arautzen ditu.

4.2. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK.

Dagozkien plan berezian eta obra proiektuetan, hurrenez hurren, finkatuko dira.

4.3. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Sistema orokorra garatzeko plan berezia (udalaz gaindikoa, Zumaia-Getariari dagokiona).
Urbanizazio proiektua.

HIRIGINTZA FITXA 3. SO - LAIA / ZULOAGA

Hirigintza fitxa honen behin betiko onespena etenik dago, Diputatuen Kontseiluak 2004ko otsailaren 17an hartutako Akordioaren bidez.

HIRIGINTZA FITXA 4. SO. ITZURUN**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.****1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.****1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.**

Lurralde antolamenduaren gidalerroak, Kosteï buruzko Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea.

1.3. EGITURA URBANOA.

Lurraldearen egitura organikoaren elementu konfiguratzailea da, udalerriko hondartzetako bat baita.

1.4. EREMUAREN AZALERA. 58.876 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Urbanizaezina: babes berezia.

2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : Espazio libreen sistema orokorra: Itzurungo hondartza eta labarrak.
Natura intereseko 2. area.

2.3. AREEN MUGAKETA : Mugaketa berri bat ezartzen da, eta horrek hauek hartzen ditu: igerileku naturala, Amaia plazatik dagoen sarbidea, labarren aurrealdea San Telmo ermitaraino, eta ermita hori bera, itsas izaera eta kokapena baitu.

2.4. ITSAS -LEHORTAR EREMUAREN MUGAKETA: Kosta zerbitzuak emandako 3.21. planoaren arabera.

3 . PROPOSATURIKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Aurreikusitako antolamendua garatu eta gero, San Telmoren, labarren eta Koldobika Jauregiren eskulturen inguruko espazio eremua definitzeko asmoa dago. Izan ere, kultur ondasun kalifikatu gisa, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen 12.1. artikulua arabera, kultura espazio eta horren ingurutzat jotzen da.

Zedarritu egin beharko da, bai eta babes bereziko erregimenaren pean ezarri ere. Horretarako kalifikazio eta inskripzio espediente bati ekin beharko zaio, euskal kultur ondarearen inbentario orokorrean sartzeko.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Kultur espazio baten eta horren inguruaren kalifikazioak kultur ondasun kalifikatuen eta horien inguruaren babes erregimena errespetatu behar du, eta, dena dela, erabilera baimenduek ondasun horiek kontserbatzea bermatu beharko dute.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Kosteï buruzko Legearen eta Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen arabera.

3.3. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Aprobetxamendua. Ez dago ezarrita.

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilerak Koste buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira.

Eraikuntza. San Telmo ermita eta Itzurungo eraikuntza multzoa (4.1. jarduera bereziko unitatea) finkatzea.

Erabilera Hondartza.
Hondartza zerbitzu osagarriak.
Berdegunea, oinezkoentzako pasealekua.
Erlijjokoa.
Kalifikatutako edo inbentariatutako kultur ondasun baten eta horren inguruaren erabilera mugei dagokienez, ondasun horren kalifikazioan edo euskal kultur ondarearen inbentario orokorrean sartzeko espedientean ezarritakoak izango dira. Dena dela, erabilera horiek ondasun hori kontserbatzea bermatu beharko dute, ondareari buruzko Lege horren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.4. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK.

Dagozkien obra proiektuen arabera.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipaturiko eremuan eginiko esku-hartze guztiek jabari publikoko lurzoruetan eragiten dutenez, horiei dagozkien baimenak izan behar dituzte, bai eta Kosten Legean kasu bakoitzerako ezartzen diren xedapenetara egokitu ere.

HIRIGINTZA FITXA 5. SO. E. GURRUTXAGA/FORONDA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

1993ko Arau Subsidiarioetan ez dago aurreikusita.

1.2. EGITURA URBANOA.

Lurraldearen egitura organikoaren elementu konfigurazaila da, udalerriko plazetako bat baita, bai bere kokapenagatik, bai dituen ekipamenduengatik.

Eremu horretako espazioak eta parkeak titulartasun publikokoak izango dira.

1.3. EREMUAREN AZALERA. 28.420 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : URBANOA.

2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : Erabilera eta jabari publikoko espazio libreen sistema orokorra. Komunitate ekipamendua.

2.3. AREEN MUGAKETA : Egungo Arau Subsidiarioetan ezarritako area gehitu egiten da.

3. PROPOSATURIKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Eusebio Gurrutxaga plazaren azalera eta eremua handitzea, Odietako frontoia desokupatzeak sortutako espazio libreen bidez. Zelaiako espazio libreak plazarekin lotzea.

Bulebar baten bidez Maria eta Jose ikastetxea Eusebio Gurrutxaga plazarekin lotzea.

Foronda jauregia, Erkibe eraikina eta fiolato zaharra arkitektura intereseko udal katalogoan sartzea. Jadarre-Gurrutxaga oinezkoentzako bulebarra hastea.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Kultur espazio baten eta horren inguruaren kalifikazioak kultur ondasun kalifikatuen eta horien inguruen babes erregimena errespetatu behar du, eta, dena dela, erabilera baimenduek ondasun horiek kontserbatzea bermatu beharko dute.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen arabera.

3.3. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Aprobetxamendua. Ez dago ezarrita. Erkibe etxearen ekipamenduari dagokionez, hori handitzeko baimena ematen da, arkitektura proiektuaren arabera. Handitze horrek ezingo ditu honako hauek gainditu: profilari dagokionez, behe solairua + 1 + teilatupea; oinplanoko okupazioari dagokionez, 200 m²; eta sabai eraikigarriari dagokionez, 500 m².

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilerak Kostei buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabekoak izango dira.

Eraikuntza.	Eusebio Gurrutxaga eta Forondako eraikinak eta eraikuntza multzoa finkatzea.
Erabilera	<p>Plaza zerbitzu osagarriak. Berdegunea, oinezkoentzako pasealekua. Plaza. Kalifikatutako edo inbentariatutako kultur ondasun baten eta horren inguruaren erabilera mugei dagokienez, ondasun horren kalifikazioan edo euskal kultur ondarearen inbentario orokorrean sartzeko espedientean ezarritakoak izango dira. Dena dela, erabilera horiek ondasun hori kontserbatzea bermatu beharko dute, ondareari buruzko Lege horren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.</p> <p>Egun dagoen gasolindegia desagertu beharreko erabileratzat jotzen da, behin egungo administrazio emakida amaitu eta gero.</p>

3.4. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK.

Dagozkien obra proiektuen arabera.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipaturiko eremuan eginiko esku-hartze guztiek jabari publikoko lurzoruetan eragiten dutenez, horiei dagozkien baimenak izan behar dituzte, bai eta Arau Subsidiario hauetan kasu bakoitzerako ezartzen diren xedapenetara egokitu ere.

Eremu pribatuak sistema orokorreko erabilera eta jabari publikokoak bihurtzeko. 5/1 jarduera bereziko unitatearen jarduera sistema desjabetzea izatea dakar.

Erkibe etxea handituz gero, exekuzio eta urbanizazio proiektua.

HIRIGINTZA FITXA 6. SO. AMAIA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

1993ko Arau Subsidiarioetan ez dago aurreikusita.

1.2. EGITURA URBANOA.

Lurraldearen egitura organikoaren elementu konfiguratzailea, udalerriko plazetako bat baita, bai bere kokapenagatik, bai berdegune izaera izateagatik.

1.3. EREMUAREN AZALERA. 8.500 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : URBANOA.

2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : Erabilera eta jabari publikoko eremuak.

2.3. AREEN MUGAKETA : 1993ko Arau Subsidiarioen 15/1. hirigintza garapeneko unitateko mugak gordetzen dira.

3 . PROPOSATURIKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Plazaren azalera eta eremua handitzea, 06. HAREN garapenak sortutako espazio libreak gehitzearen bidez.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Arau Subsidiarioen arabera.

3.2. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Aprobetxamendua. Ez dago ezarrita. Behar balitz, aparkalekua, Amaia plazaren azpian. Arkitektura proiektuaren arabera.

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilera Koste buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira.

Eraikuntza. Amaia plazako multzo urbanizatua finkatzea.

Erabilera Berdegunea. Oinezkoentzako pasealekua. Plaza. Haurrentzako jolasak.

3.3. EKIPAMENDU ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK.

Dagozkien obra proiektuen arabera.

3.4. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipaturiko eremuan eginiko esku-hartze guztiek jabari publikoko lurzoruetan eragiten dutenez, horiei dagozkien baimenak izan behar dituzte, bai eta Arau Subsidiario hauetan kasu bakoitzerako ezartzen diren xedapenetara egokitu ere.

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Portuko zerbitzu eremu bat da eta hauek hartzen ditu: portu jarduerak egiteko behar diren lur eta ur azalerak, jarduera horien osagarriak direnak egiteko behar direnak, eta portuko jarduera garatzea bermatzen duten erreserba espazioak ere.

Hortik sortzen den unitate morfologikoak sistema orokorraren kalifikazioa du.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Plan bereziaren (1997) izapideak egin dira eta behin betiko onetsita dago.

Portuko urbanizazio eta instalazioen proiektua izapidetuta, onetsita eta guztiz exekutatuta dago.

Egun plan horri eginiko aldaketa bat behin betiko onetsi da, Astilleros Balenciagaren zabaltze beharrei hirigintza estaldura emateko.

Paolako pasealekuaren urbanizazio proiektua izapidetuta eta onetsita dago, eta exekutatzen ari dira.

1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.

Lurralde antolamenduaren gidalerroak.

Portuei buruzko legea.

Kostei buruzko Legea.

1.3. EGITURA URBANOA.

Kanpoko dikea eta kontradikea zabaltzeak (portu eremurako sarbidea hobetzeko), eremu hori garatzeko aukera eman du. Hori dela eta, portu eremu eta jarduera Zumaiako hiri bilbearen elementu egituratzaile bihurtu dira.

1.4. EREMUAREN AZALERA. 351.570 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Urbanoa.

2.2. KALIFIKAZIO GLOBALA : Garraio eta komunikazioen sistema orokorra: portua.

2.3. AREEN MUGAKETA : Portu Gaien Transferentziari buruzko Errege Dekretuaren arabera. Ondoren eginiko kanpoko dikearen eta kontradikearen zabalkuntza: plan bereziaren arabera.

3. PROPOSATURIKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Plan berezian ezarritakoak:

0. EA. ASTILLEROS BALENCIAGA – azalera: 20.111 m²

1. EA. KIROL DARTSENA – azalera: 76.823 m²

2. EA. KAPITAINZA ETA GASOLINDEGIA – azalera: 753 m²

3. EA. KIROL DARTSENAREN EKIPAMENDUA – azalera: 8.644 m²

4. EA. NARRONDOKO DARTSENA – azalera: 6.941 m²

5. EA. UROLAKO KAIKO PARKEA – azalera: 12.129 m²

6. EA. NARRONDOKO ZUBIA – azalera: 977 m²

7. EA. ITSASERTZA – azalera: 16.941 m²

8. EA. HEZEGUNEA – azalera: 63.991 m²

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Plan berezian ezarritakoak.

Babes zortasuna dagokien eraikinek aldi baterako 4. xedapenean ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorguneko eremuko erabilera Kostei buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira.

3.3. APROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Aprobetxamendua. Plan berezian ezarritakoak.

Eraikuntza. Plan berezian ezarritakoak, bai eta 0. EAn eginiko aldaketa ere.

Jabaria. Publikoa (Eusko Jaurlaritzako Garraio Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza).

Erabilera globala. Portu trafikoa eta jarduerak.

Erabilera baimenduak: Plan bereziaren arabera. Hain zuzen:

Portu trafikoa (Estatuko Portuei buruzko Legearen 2.3. artikulua arabera).

Portuko merkataritza jarduerak (3. artikulua), uretako eta kirol erabilera, kultura eta aisialdi ekipamenduak, feriak eta erakusketak, eta portu trafikoarekin duten erlazioetatik, portuan sortzen duten trafiko bolumenetatik edo portuko erabiltzaileei ematen dieten zerbitzuetatik (erabilera osagarriak) portuan kokatzea justifikaturik duten industriako edo merkataritzako enpresen jarduerak. Aldi berean, urtaroko lurrazaleko aparkaleku erabilera.

ESKU-HARTZE AREAK IZENA	AZALERA	JARDUERA	
0. EA - ASTILLEROS BALENCIAGA	20.111 m ²	Kontzesio pribatua	Urtaroko aparkalekua eta kateatze zona, 18 metrora arte. (100 leku) Plan bereziaren aldaketaren arabera
